

Kerik gabeko eremuak bultzatu nahi ditu Nafarroako Gobernuak

Nafarroan 16 urtez goitiko pertsonen %34k erretzen dute

Asier Azpilikueta / Iruñea

«Kerik gabeko giroa mantentzeagatik, mila esker». Horixe da Nafarroako Gobernuak tabakismoari aurre egiteko erabiliko

duen kanpaina berriaren leloa. Asmo horrexekin berarekin loturik, ordenadoretarako pantaila-babeslea aurkeztu zuten atzo kanpainaren sustatzaile eta antolatzatzaileak.

TABAKISMOA da saihets daitekeen lehen heriotza kausa Nafarroan, Osasun departamentuko agintariek adierazi zutenez. «Galdeginen balidate zein den Nafarroako osasun arazo nagusia, tabakismoa dela erantzun beharko nuke», erran zuen osasun kontseilari Santiago Cerverak horren harira.

Ordenadorea pizturik izan bai baina erabiltzen ari ez denean automatikoki aktibatzen den programa informatikoa da pantaila-babeslea. Nafarroako Gobernuak atzo aurkeztu zuen pantaila-babesleak lan eta ikas-giroetan ez erretzera animatu nahi du, eta horretarako leku horietan non-nahi aurki daitezkeen ordenadoreak erabiltzen ditu euskarri gisa.

Vivaldiren gitarra kontzertu baten zatitxo bat entzun ondoren, pantaila-babesleak langiro idilikoa erakusten du, zuhaitz eta belar arteko bulego bat. Giro hori, ordea, aldrebesten da lankide bat erretzen hasten denean. Hirugarren zigarroa erretzen duenerako, inguruak haserre bizian ditu. Horrelako egoerak saihestea da Nafarroako Gobernuaren helburua.

Pantaila-babeslearen irudiak Patxi Huartek egin ditu eta programazioa Tomas



ARGAZKILARIA

Tabakoaren aurkako mezuak zabalduko dituzte kanpaina honetan, bitarteko ugari baliatuta.

Astizek eginga da. Nahi izanez gero, pantaila-babeslea Nafarroako Gobernuaren webgunetik har daiteke (www.cfnafarra.es). Ekimen honek «kerik gabeko eremu publikoen aldeko gizarte sentiberatasuna bultzatu nahi du», eta tabakoaren aurkako kanpaina zabal baten barnean sartua da.

Nafarren herenek erretzen dute

Osasun departamentuaren datuen arabera, 16 urtez goitiko nafarren artean %34

erretzaileak dira eta %11 erretzaile ohiak. Dena dela, geroz eta gutiago erretzen da Nafarroan, eta egiten dutenek gehiago neurtzen dute bere kontsumoa. Erretzaileak 14 edo 15 urterekin hasten dira, baina adin hori atzeratuz doa gutinaka 16-17 bitartera. Osasun departamentuaren aburuz, ez dira pozteko moduko datuak tabakoaren inguruan sorturiko interes ekonomikoak arras handiak direlako eta gazteak tabakora hurbiltzeko bideak geroz eta ugariagoak eta sofistikatuagoak direlako.

laburrean

■ Espainiaren Kolonbiako enbaxadoreak Camino Villanuevaren senideak bisitatu zituen atzo

ESPAINIAK Kolonbian duen enbaxadoreak, Diego Pico de Coañak, Camino Villanueva kooperante nafarraren senitarteak bisitatu ditu egunotan. Villanueva abenduaren 8an bahitu zuten Hego Ameriketako nazio hartan, eta oraindik desagertuta dago. Enbaxadorearen hurbileko kideek esan dutenez, bahiketa gertatu zenetik harreman zuzena izan du Pico de Coañak desagertutako neskaren senideekin. Camino Villanuevak 26 urte ditu eta Kolonbiako garapenerako prozesu batean ari zen lanean bahitu zutenean. x

■ Hamahiru lagun atxilotu ditu Guardia Zibilak Nafarroan droga trafikoa jarduteagatik

MINA izeneko operazioa burutu berri du Nafarroan Guardia Zibilak: hamahiru lagun atxilotu dituzte, Noainen eta Beriainen droga trafikoa aritzeagatik. Halaber, droga piloa (kokaina, haxixa, speeda eta marihuana), bost milioi pezeta pasatxo eta arma sorta bat atzeman dizkiete. Itxura denez, Beriaingo bi tabernatan droga trafiko handia bideratzen zutela hauek mandakoan hasi zen Guardia Zibila ikertzen. x

■ Arnasketa arazoak dituzten gaixoak ugaritu egin direla dio Osakidetza, eta gripea ez dela hainbeste hedatu

OSAKIDETZAK, prentsa agiri batean, azken egunotan gripe kasuak ugaritu direla-eta zabalduko albisteei erantzun die. Aditza eman dutenez, gripe kasuak baino gehiago ugaritu dira arnasketa arazoak dituztenen eritasunak. Kasu horiek guztiak ezin direla gripearekin lotu esan dute eta gripearen garapena ez dela hain handia. Gainera, orain artean isolatutako gripe birusak Osakidetza ipinitako txertoenekin bat datozela azaldu dute. x



■ Sute batek Basauriko mendiak kiskali zituen atzo

BASOZELAI, Malmasin eta Montefuerte mendietan sute bat zabaldu zen atzo, eta hiru kilometro kiskali zituen. Oraindik argitzeke dago sutea zerk eragin zuen, baina ez haren ondorio ilunak, zuhaitz asko—haritzak eta eukaliptoak tartean—kiskali baitzituen. 35 lagun inguru (argazkian haietako bat ageri da) aritu ziren sua itzaltzen, eta ez zuten lan erraza izan, haize zakarra ibili baitzen. x

Frantziako Estatuko hizkuntza guztien zerrenda egiteko agindu du Gobernuak

■ Bernard Cerquiglini hizkuntz erakaslea izanen da lanaren arduraduna

Lutxi Fourcade / Baiona

EUROPAKO itunaren izenpetzeak urrats berri bat egin du Frantziako Estatuan. Hain zuzen, Claude Allegre Hizkuntza ministroak eta Catherine Trautmann Kultura ministroak Bernard Cerquiglini izendatu dute hizkuntza gutxituei buruzko inkesta berri bat egiteko. Hain zuzen, Poignant-Pery txostenaren ondotik, Guy Carcassone legegizonak adierazi zuen frantses estatuak izenpetzen ahaliko zuela Europako ituna. Itxura denez, itunaren izen-

petzeak bat egiten du Frantziako Konstituzioarekin, nahiz eta *Frantsesa da Errepublikaren hizkuntza* esaldia agertu.

Alabaina, ituna izenpetu baino lehen, frantses gobernuak galdegin du estatuan mintzo diren hizkuntza guztien zerrenda zehatza egitea. Cerquiglini beharko du frantses nazionalitateko biztanleen hizkuntzen zerrenda osatu, metropoli eta uhartee-tako hizkuntza guztiak agertuz. Ondotik, beharko du esan zein hizkuntzari aplikatu daitekeen Europako ituna.

Bernard Cerquiglini, hizkuntzalaritza irakaslea da, eta frantses hizkuntzaren institutuaren zuzendaria CNRS Zientzi Ikerkuntzarako Zentro Nazionallean. Lana epe laburrean egin beharko du. Lionel Jospin lehen ministroak adierazi zuen urriaren 7an Frantziak izenpetuko zuela Europako ituna. Izenpetzea urtearen hasieran egingen zela berretsi zuen Nicole Peryk, Baionako estatuko idazkariak. Ondotik, Asanblea Nazionaleko diputatuak bilduko dira Euroitunaren aplikatzeko legea onartzeko.